

Xedapen Orokorrak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

96

230/2008 DEKRETUA, abenduaren 30ekoa; horren bidez, enpresa txiki eta ertainen finantza egitura egokitzeko finantza laguntza emateko programa garatuta da.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2009. urterako aurrekontuak onetsi dituen abenduaren 26ko 19/2008 Legeko bederatzigarren xedapen gehigarriaren bidez Gobernuari baimena eman zaio, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak proposatuta, euskal enpresak finantzatzeko laguntzeko programa berezi bat onar dezan. Horretarako, hurrengo jardun ildoak ezarri dira:

– Bermeen funts berezi bat, gehienez ere 100 milioi euroko zuzkidura duena, euskal enpresak finantzatzeko laguntzeko.

– Banako enpresariei, autonomoei, enpresa txiki eta ertainei gehienez ere 500 milioi euroko finantzaketa emateko urte anitzeko bitartekoa irekitzea, zirkulazaila gisa dituzten beharrezko erantzuteko, zorra epe laburrera berritzeko, epe laburreko zorra epe ertain eta luzerako zor gisa egokitzeko eta, hala dagokionean, inbertsio planak azeleratzea dakarten finantza arloko jarduketak gauzatzeko.

Munduko finantza krisiak mesfidantza eragin du finantza merkatuetan eta, ondorioz, likidezia murriztu egin da jarduera ekonomiko osoan. Modalitate guztietan eman den kredituaren murrizketak euskal enpresengan ere izan du eragina eta, bereziki, enpresa txiki eta ertainengan, banako enpresariengan eta profesional autonomoengan.

Dekretu honen bidez, bederatzigarren xedapen gehigarrian jasotzen den finantzaketa jasotzen laguntzeko programa berezia garatu da enpresa txiki eta ertainei (ETE) zuzenduta, talde horrek garrantzi handia duela gure egitura ekonomikoan. Bederatzigarren xedapen gehigarriko bestelako arau garapenen bidez banako enpresariei eta profesional autonomoei zuzendutako bitartekoak osatzen dira, hauek ere egoera bertsuan baitaude.

Dekretuan honakoak arautu dira: kreditua lortzeko baldintzak, onuradunak, baliabideen erabilgarritasuna, kreditu eta maileguren baldintzak, elkarren bermerako sozietateen aurrean jarraituko den izapidetzeko proze-

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

96

DECRETO 230/2008, de 30 de diciembre, por el que se desarrolla el Programa de Apoyo Financiero para la adecuación de la estructura financiera de las pequeñas y medianas empresas.

La disposición adicional novena de la Ley 19/2008, de 26 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2009, autoriza al Gobierno a aprobar, a propuesta del Departamento de Hacienda y Administración Pública, un programa específico de apoyo al acceso a la financiación de las empresas vascas mediante el establecimiento de las siguientes líneas de actuación:

– Un fondo especial de garantías, con una dotación máxima de 100 millones de euros, destinado a facilitar la financiación de las empresas vascas.

– La apertura de una línea plurianual de financiación a empresarios individuales, autónomos, pequeñas y medianas empresas, con una dotación máxima de 500 millones de euros, para atender sus necesidades de circulante, la renovación de la deuda a corto plazo, la adecuación de deuda a corto plazo en deuda a medio y largo plazo, así como, en su caso, aquellas actuaciones de naturaleza financiera que supongan una aceleración de sus planes de inversión.

La crisis financiera mundial ha originado una situación de desconfianza en los mercados financieros y, consecuentemente de restricciones de liquidez para el conjunto de la actividad económica. La situación actual de restricción del crédito, en todas sus modalidades, afecta a las empresas vascas y, muy especialmente a las pequeñas y medianas, así como a los empresarios individuales y profesionales autónomos.

El presente Decreto desarrolla el programa específico de apoyo al acceso a la financiación contemplado en la citada disposición adicional novena para el colectivo de las pequeñas y medianas empresas (Pymes) dada la importancia de este colectivo en nuestro tejido económico. Otros desarrollos normativos de la disposición adicional novena implementan líneas similares destinadas al colectivo de los empresarios individuales y profesionales autónomos, también profundamente afectados por esta situación.

El Decreto regula las condiciones de acceso al crédito, los beneficiarios, la disponibilidad de los recursos y las condiciones de los créditos y préstamos así como el procedimiento de tramitación ante las sociedades de

dura eta finantzaketa lortzen laguntzeko programa be-rezian laguntzen duten finantza erakundeak. Ondorio horietarako, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak beharrezkoak diren lankidetzaz hitzarmenak sinatuko ditu elkarren bermerako sozietateekin eta finantza erakundeekin.

Dekretu hau osatzeko deialdirako aginduak egingo dira.

Hori dela bide, Ogasun eta Herri Administrazio sail-buruak proposatuta eta Gobernu Kontseiluak 2008ko abenduaren 30ean egindako bileran eztabaidatu ondo-ren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea da enpresa txiki eta ertainei finantzaketa emateko bitartekoa eratzea eta finantzaketa hori eskuratzeko baldintzak eta prozedura arautzea. Bitarteko horren bidez, bankuaren finantzaketa lortu ahal izango da, modalitate ezberdinetan, eta horrela zirkulatuazilearen beharrianak bete, epe laburreko zorra berritu eta epe laburreko zorra epe ertain eta luzerako zor gisa egokitu ahal izango da.

Xede horrekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, lankidetzaz hitzarmenak sinatzen dituzten elkarren bermerako sozietateen eta finantza erakunde laguntzaileen bitartez, Bermearen Funts Berezia eta enpresa txiki eta ertainen aldeko finantzaketa bitartekoa eratuko ditu.

2. artikulua.– Onuradunak.

1.– Dekretu honetan ezartzen diren finantzaketarako bermeak jaso ahal izango dituzte egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa txiki eta ertainek (ETE), baldin eta hurrengo baldintzak betetzen badi-tuzte:

- Ustiapen ekonomikoa burutzea.
- 250 langile baino gutxiago edukitzea.
- Urteko negozio-bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez izatea, edo urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa ez izatea.
- Zuzenean edo zeharka beste enpresa baten edo batera beste enpresa batzuen % 25eko edo hortik gorako partaidetza ez izatea, aurretik adierazitako baldintzaren bat bete gabe.

Aurretik adierazitakoak beste interpretaziorik balu, Europako Batzordeak enpresa txiki eta ertainak definitzeko buruz 2003ko maiatzaren 6an emandako 2003/361/EE Gomendioan ezarritakoa hartuko da

garantía recíproca y las entidades financieras colaboradoras en el programa específico de apoyo al acceso a la financiación. A estos efectos el Departamento de Hacienda y Administración Pública suscribirá los oportunos Convenios de colaboración con las sociedades de garantía recíproca y las entidades financieras.

Este Decreto se complementará con las correspondientes Órdenes de convocatoria.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 30 de diciembre de 2008,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.– Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto constituir una línea de financiación destinada a pequeñas y medianas empresas y regular las condiciones y el procedimiento de acceso a la misma. Esa línea tendrá como finalidad permitir el acceso a la financiación bancaria, en distintas modalidades, para la cobertura de las necesidades de circulante, la renovación de la deuda a corto plazo y la adecuación de deuda a corto plazo en deuda a medio y largo plazo.

Para ello la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a través de las Sociedades de Garantía Recíproca y las Entidades Financieras colaboradoras, con las que se instrumenten los correspondientes Convenios de colaboración, constituirá el Fondo Especial de Garantía y la correspondiente línea de financiación a favor de las pequeñas y medianas empresas.

Artículo 2.– Beneficiarios.

1.– Podrán acceder a las garantías y a la línea de financiación contemplada en el presente Decreto las Pequeñas y Medianas Empresas (Pyme), domiciliadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi, entendiéndose por tales aquéllas que cumplan los siguientes requisitos:

- Que lleven a cabo una explotación económica.
- Que empleen a menos de 250 personas.
- Que su volumen de negocio anual no supere los 50 millones de euros, o bien, que su balance general anual no rebase los 43 millones de euros.
- Que no se halle participada directa o indirectamente en un 25%, o más, por otra empresa, o conjuntamente por varias de ellas, que no reúna alguno de los requisitos anteriormente expuestos.

Para cualquier otra interpretación de lo señalado anteriormente, se tendrá en cuenta lo establecido en la Recomendación 2003/361/CE de la Comisión, de 6 de mayo de 2003, sobre la definición de pequeñas y media-

kontuan (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L124, 2003ko maiatzaren 20koa), edo gomendio hori ordeztu edo aldatzen duten xedapenak.

Halaber, elkarren bermerako sozietateen bidez bideratuko diren bermeen onuradun izan daitezke, elkarren bermerako sozietateen araubide juridikoari buruzko martxoaren 11ko 1/1994 Legearen 1. eta 2. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorri sozietate horiek bermatuta kide izan daitezkeen enpresak.

2.– Jarduera ekonomikoko sektore guztiek jaso ahal izango dute finantzaketa. Hala ere, ezin dira onuradun izan erakunde eta sozietate publikoak, finantza enpresak (EJZko 81, 82, 831, eta 832 epigrafeak) eta higiezin izaerakoak (EJZko 833, 834 eta 861.1 epigrafeak).

3.– Finantzaketa eskuratu ahal izateko enpresa ezin da egon krisi egoeran, Europako Batzordearen 2004/C 244/02 Komunikazioan ezarritakoa betez (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, 2004ko urriaren 1ekoa); horrez gain, enpresak egunean izan behar ditu foru ogasunekiko betebeharrak.

3. artikulua.– Finantza daitezkeen egoerak.

Finantza egitura egokitzeko proiektuak finantzatzeko modukotzat joko dira baldin eta enpresak aurkeztu duen finantza egitura etorkizunean garatzeko ezegokia bada edo, betiere, horren maniobra funtsa pasibo osoaren % 10etik beherakoa bada edo horren kapital zirkulatzailaren aldaketa negatiboa bada.

4. artikulua.– Finantza daitezkeen pasiboa.

1.– Bermea behar duten mailegu edo kreditu eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Kontabilitateko Plan Orokorren balantzearen pasibo arrunteko 4 eta 5 multzoetan (Hartzekodun komertzialak eta epe laburreko zorrak) sartzen diren hurrengo partidak zenbatuko dira:

400.– Hornitzaileak.

401.– Hornitzaileak, ordaindu beharreko merkataritzako efektuak.

407.– Hornitzaileentzako aurrerakinak.

520.– Epe laburreko zorrak kreditu erakundeekin.

521.– Epe laburreko zorrak.

524.– Epe laburreko finantza errentamenduaren ziozko hartzekodunak.

525.– Epe laburrera ordaindu beharreko efektuak.

527.– Kreditu erakundeekin dauden zorren epe laburreko korrituak.

528.– Zorren epe laburreko korrituak.

– Merkataritzako efektuen, kreditu kontuen eta merkataritzako hartzekodunen deskontu eragiketetan, eskabidea aurkeztu baino 12 hilabete lehenagoko batez besteko saldoa zenbatuko da.

nas empresas (DOUE, L124, de 20 de mayo de 2003), o las disposiciones que la sustituyan o modifiquen.

Asimismo, podrán ser beneficiarios de las garantías, instrumentadas a través de las Sociedades de Garantía Recíproca, aquellas empresas que puedan ser socios avalados por dichas sociedades de acuerdo con lo establecido en los artículos 1 y 2 de la Ley 1/1994, de 11 de marzo, sobre Régimen Jurídico de las Sociedades de Garantía Recíproca.

2.– Las líneas de financiación estarán abiertas a todos los sectores de actividad económica. No obstante quedan excluidas como beneficiarios los Entes y Sociedades Públicas, las entidades sin ánimo de lucro, las entidades financieras (Epígrafes I.A.E.: 81, 82, 831, y 832) y las de naturaleza inmobiliaria (Epígrafes I.A.E.: 833, 834 y 861.1).

3.– Será requisito para acogerse que la empresa no esté en situación de crisis, según lo establecido en la Comunicación de la Comisión 2004/C 244/02 (DOUE de 1 de octubre de 2004), así como que esté al corriente en el pago de sus obligaciones con las Diputaciones Forales y la Seguridad Social.

Artículo 3.– Situaciones financiables.

Los proyectos de adecuación de estructura financiera serán calificados como financiables cuando la estructura de financiación presentada por la empresa sea inadecuada para su desenvolvimiento futuro y, en todo caso, siempre que su capital corriente sea inferior al 10% del total del balance, o que la variación de ese capital corriente tenga signo negativo en el último ejercicio.

Artículo 4.– Pasivo financiable.

1.– Serán computables, a efectos del cálculo del importe de las operaciones de préstamo o crédito objeto de garantía, las siguientes partidas integrantes de los grupos 4 y 5 del pasivo corriente del balance (Acreedores comerciales y deudas a corto plazo) del Plan General de Contabilidad, aprobado por el Real Decreto 1514/2007, de 16 de noviembre:

400.– Proveedores.

401.– Proveedores, efectos comerciales a pagar.

407.– Anticipos a proveedores.

520.– Deudas a corto plazo con entidades de crédito.

521.– Deudas a corto plazo.

524.– Acreedores por arrendamiento financiero a corto plazo.

525.– Efectos a pagar a corto plazo.

527.– Intereses a corto plazo de deudas con entidades de crédito.

528.– Intereses a corto plazo de deudas.

En las operaciones de descuento de efectos comerciales, cuentas de crédito y acreedores comerciales se computará el saldo medio de los 12 meses anteriores a la fecha de la solicitud.

Kreditu erakundeekin dauden zorretan, eskabidea aurkeztu osteko bi urte naturaletan amortizaziorako utzi diren kopuruen batura zenbatuko da.

2.– Enpresaren pasibo arruntaren egoera aztertu ondoren zehaztuko ditu elkarren bermerako sozietateak, dekretu honetako III. kapituluan ezarri den prozedura betez, abalaren zio den maileguaren edo kredituaren finantza eragiketaren zenbatekoa eta epea.

II. KAPITULUA

ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN FINANTZA EGOKITZAPENERAKO PROIEKTUEN MAILEGU ERAGIKETAK

5. artikulua.– Hitzarmenak elkarren bermerako sozietateekin eta finantza erakundeekin.

1.– Dekretu honen itzalpean gauzatzen diren mailegu eta kreditu eragiketa guztiak elkarren bermerako sozietate batek bermatuko ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta bertan jarduten duten elkarren bermerako sozietateek bideratuko dituzte Bermeen Funts Bereziaren eraketa eta funtzionamendua; horrez gain, hitzarmen bat sinatuko dute aipatutako sozietateek bermatzen dituzten finantza eragiketei bermeen sistema bat emateko.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta finantza erakundeek lankidetzaz hitzarmenak sinatuko dituzte finantza erakundeek behar dituzten funtsak emateko, hau da, onuradunen aldeko maileguak eta kredituak onartzeko behar dituzten funtsak emateko erakunde horiei, betiere elkarren bermerako sozietateek bermatu dituztenean.

6. artikulua.– Abal eragiketen ezaugarriak.

1.– Elkarren bermerako sozietateek emandako finantza abalek zuzenean edo zeharka bermatu behar dituzte onuradunek finantza erakunde laguntzaileen aurrean dituzten diru-arriskuak; izan ere, arrisku horiek ondokoen zioz gerta daitezke: bankuko pasiboa berregituratzeko mailegu eragiketak; zirkulatzaila finantzatzeko maileguak; epe laburreko finantza errentamenduen eragiketak; kreditu polizetan eskuragarri dauden kopuruak, baimendutako mugaraino, eta geroago mugaeguneratzen diren merkataritzako efektuak aurkeztearen kontra finantza erakundeek emandako funtsak.

2.– Abalen kostua eta baldintzak honako hauek dira:

– Azterketaren ziozko komisioa: maileguaren printzipalaren % 0,15, abala eskatzean eta behin bakarrik.

– Abalaren ziozko komisioa: urtean % 0,50.

a) Maileguak.– Aurretik aplikatuko zaio, urtarrilaren 1eko datarekin, bermatu den maileguaren urteko batez besteko saldoari. Gauzatzen den urtean eta behin betiko mugaeguneratzen den urtean, urtea amaitu arte

En las deudas con entidades de crédito se computará la suma de las cantidades dedicadas a amortización de los dos años naturales siguiente al de la solicitud.

2.– Analizadas las necesidades de financiación del capital corriente, la Sociedad de Garantía Recíproca determinará, siguiendo el procedimiento establecido en el Capítulo III del presente Decreto, el importe y plazo de la operación financiera de préstamo o crédito objeto de la garantía.

CAPÍTULO II

OPERACIONES DE PRÉSTAMO Y CRÉDITO DE ADECUACIÓN FINANCIERA

Artículo 5.– Convenios con las Sociedades de Garantía Recíproca y las Entidades Financieras.

1.– Todas las operaciones de préstamos y de créditos formalizadas en virtud de lo establecido en el presente Decreto estarán avaladas por una Sociedad de Garantía Recíproca. La Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Sociedades de Garantía Recíproca operantes en la misma, instrumentarán la constitución y funcionamiento del Fondo Especial de Garantías y suscribirán un Convenio que dotará de un sistema de garantías a las operaciones financieras avaladas por las citadas Sociedades.

2.– La Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Entidades Financieras suscribirán Convenios de Colaboración que permitan proporcionar a las Entidades Financieras los fondos necesarios para conceder los préstamos y créditos a favor de los beneficiarios avalados por las Sociedades de Garantía Recíproca.

Artículo 6.– Características de las operaciones de aval.

1.– Los avales financieros otorgados por las Sociedades de Garantía Recíproca garantizarán, directa o indirectamente, riesgos dinerarios de los beneficiarios ante las Entidades Financieras colaboradoras derivados de operaciones de préstamo destinadas a la reestructuración del pasivo bancario, préstamos destinados a la financiación de circulante, operaciones de arrendamiento financiero a corto plazo, cantidades dispuestas de pólizas de crédito hasta el límite autorizado y fondos facilitados por las entidades financieras contra la presentación de efectos de comercio con vencimiento posterior.

2.– El coste y condiciones de los avales serán los siguientes:

– Comisión de estudio: 0,15% del principal del préstamo, por una sola vez a la solicitud del aval.

– Comisión de aval: 0,50% anual

a) Prestamos.– Se aplicará anticipadamente con fecha 1 de enero sobre el saldo medio anual del préstamo avalado. En el año de su formalización y el de su vencimiento definitivo se aplicará sobre el saldo medio

edo mugaeguneratu arte benetan igaro den egun kopuruarekiko proportzionala den moduan aplikatuko zaio batez besteko saldoari.

b) Kreditu kontuak: urtekoetan adierazitako batez besteko saldoari aplikatuko zaio.

– Ez da aplikatuko gastu edo komisio osagarriarik.

7. artikulua.– Finantza eragiketen ezaugarriak.

Hona hemen mailegu eta kredituen ezaugarriak:

a) Bermatutako eragiketa bakoitzeko 50.000 euroko zenbatekoa, gutxienez.

b) Onuradun bakoitzaren maileguak guztira ezin dira 600.000 eurotik gorakoak izan.

c) Epea: 1-3 urte. Printzipalak maileguetan duen gehieneko gabealdia urtebetekoa izango da. Amortizazioa eta interesak hiru hilabete behin egingo dira, dagokion aldia bukatuta.

d) Aplikatu beharreko interes tasa Euriborra izango da, gehi % 0,60, eta hori hiru hilean behin aztertu behar da. Ondorio horietarako, Euribor gisa ulertu behar da, Reuter-en Euribor= pantailaren bidez (oinarria: Act/360) edo, aurrekoa desagertuz gero, informazio bera eman dezakeen beste pantaila baten bidez lortutako bankuen arteko interes tasa. Tasa hori hiru hilabeterako gordailuetarako da, eta eragiketaren dataren edo berrikuspen dataren aurreko azken egun baliodunean kalkulatzeko da. Ez da biribiltzerik onartuko.

e) Ez da aplikatuko komisiorik edo gastu gehigarriarik.

f) Mailegu-hartzaileak epea bukatu aurretik eta bature kosturik gabe ezeztatu edo kendu ahal izango du mailegua edo kreditua.

III. KAPITULUA PROZEDURA

8. artikulua.– Deialdia.

Dekretu honek arautzen dituen finantzaketak deialdi batean azalduko dira; deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta horretarako beti beteko dira publikitate, lehia eta objektibotasunaren printzipioak.

Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren aginduz egingo da aipatutako deialdia. Aginduan, hain zuzen, ondokoak zehaztuko dira: eskuragarri dauden baliabideen guztirako zenbatekoa, eskabideak aurkezteko epea eta tokia eta prozedurari lotutako gainerako alderdiak. Horrez gain, deialdiari heldu dioten elkarren bermerako sozietateen eta finantza erakundeen zerrenda jasoko da aginduan.

de forma proporcional al número de días efectivamente transcurridos hasta fin de año o hasta el vencimiento.

b) Cuentas de Crédito: se aplicará a la finalización de cada semestre natural sobre saldo medio dispuesto.

– No se aplicará ningún tipo de comisión o gasto adicional.

Artículo 7.– Características de las operaciones financieras.

Las características de los préstamos y créditos serán las siguientes:

a) La cuantía mínima por operación avalada será de 50.000 euros.

b) La cuantía máxima por beneficiario avalado será de 600.000 euros.

c) Plazo: de 1 a 3 años. Período máximo de carencia del principal en los préstamos, 1 año. Amortización e intereses trimestrales por períodos vencidos.

d) El tipo de interés aplicable será el Euribor más un margen de 0,60%, revisable trimestralmente. A estos efectos, se entenderá por Euribor, el tipo de interés interbancario obtenido a través de la pantalla Euribor=, de Reuter, base (Act/360), u otra pantalla que suministre la misma información en el caso de que desaparezca la anterior, para depósitos a tres meses, el último día hábil anterior a la fecha de la operación o a la fecha de revisión, en su caso. No será admitido redondeo alguno.

e) No se aplicará ningún tipo de comisión o gasto adicional.

f) El prestatario podrá cancelar o amortizar anticipadamente el préstamo o crédito sin coste alguno.

CAPÍTULO III PROCEDIMIENTO

Artículo 8.– Convocatoria.

El acceso a las líneas de financiación reguladas por este Decreto será objeto de convocatoria que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco y se realizará bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad.

La convocatoria se realizará por Orden de la Consejera de Hacienda y Administración Pública y precisará el importe total de los recursos disponibles, el plazo y lugar para la presentación de solicitudes y demás aspectos procedimentales, e incluirá la relación de las Sociedades de Garantía Recíproca y Entidades Financieras colaboradoras en la convocatoria.

9. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskatzaileek hurrengo agiriak bete beharko dituzte:

a) Eskabidea, erantsita ematen den F1 inprimakian jasotako ereduaren arabera.

b) Eskatzailearen ordezkio izateko boterearen fotokopia.

c) Eskabidean jasotzen diren alderdiak egiazkoak direla frogatzeko aitorten erantzulea (erantsita ematen den F2 inprimakia). Ikuskapen bisita baten bidez frogatuko dira, hain zuzen, hurrengo alderdiak:

– Eskabidea egin den ekitaldiaren aurrekoan, abenduaren 31n, plantillan dagoen langile-kopurua, hilabete horretako TC1aren arabera.

– Eskabidea egin den ekitaldiaren aurrekoan, abenduaren 31n, fakturatutako kopurua.

– Eskabidea egin den ekitaldiaren aurrekoan, abenduaren 31n, urteko balantze orokorraren kopurua.

– Zuzenean edo zeharka, haren kapitalaren % 25 edo gehiagoko partaidetza ez izatea enpresa txiki edo ertain ez den enpresa batek edo batzuek batera.

d) Foru ogasunetan zerga betebeharrak egunean dituela frogatzen duen ziurtagiria.

e) Foru Ogasunaren ziurtagiria, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafea, eskatzailea alta emanda dagoena, agertzen duena.

f) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzen duen ziurtagiria.

g) Azken ekitaldietako urteko kontuak.

h) Pasibo galdagarria finantzatzeko beharrianen memoria deskribatzailea. Enpresak egin behar du (erantsita ematen den F3 inprimakia).

2.– Eskatzaileak gorago aipatutako aitorpenean jasotako datuen bat faltsutzen badu, indarrean dagoen zehapen araubidea ezarriko zaio, bai administratiboa, bai penala.

3.– Nolanahi ere, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak eta elkarren bermerako sozietate laguntzaileek eskabidea aurkeztu duen enpresari informazio gehiago eskatu ahal izango diote, eskabidea behar bezala ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko beharrezkotzat jotzen badute.

10. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Enpresa txiki eta ertainek elkarren bermerako sozietateen bulegoetan aurkeztu beharko dituzte eskabideak eta aurreko artikuluan azaldutako gainerako agiriak, hitzarmena betez. Deialdia egiteko aginduan zehazten dira elkarren bermerako sozietate laguntzaileak eta horien bulegoak.

Artículo 9.– Documentación a presentar.

1.– Los solicitantes deberán cumplimentar la siguiente documentación:

a) Solicitud, según modelo incluido en el Formulario F1 del anexo.

b) Fotocopia del poder de representación de la persona solicitante.

c) Declaración responsable (Formulario F2 del anexo) respecto a la veracidad de los aspectos que aparecen recogidos en dicha solicitud, que, en su caso, se comprobarán en visita de inspección y que son los siguientes:

– El número de trabajadores en plantilla existente a 31 de diciembre del ejercicio anterior al de la solicitud, según TC1 de ese mes.

– La cifra de facturación a 31 de diciembre del ejercicio anterior al de la solicitud.

– La cifra de su balance general anual a 31 de diciembre del ejercicio anterior al de la solicitud.

– Que no se encuentra participada, directa o indirectamente, en un 25%, o más, de su capital por una empresa que no sea Pyme o conjuntamente por varias de ellas.

d) Certificación de estar al corriente de las obligaciones tributarias ante las Diputaciones Forales.

e) Certificación de la Diputación Foral en la que figure el epígrafe del Impuesto de Actividades Económicas en el que esté dada de alta la empresa.

f) Certificación de estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social.

g) Cuentas anuales de los últimos ejercicios.

h) Memoria descriptiva de las necesidades de financiación del pasivo exigible elaborado por la empresa (Formulario F3 del anexo).

2.– Si el solicitante falseara cualquiera de los datos incluidos en la declaración anteriormente mencionada se verá sometido al régimen sancionador, tanto administrativo como penal, vigente.

3.– En cualquier caso, el Departamento de Hacienda y Administración Pública y las Sociedades de Garantía Recíproca colaboradoras podrán requerir a la empresa solicitante información complementaria que considere necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y tramitación de la solicitud presentada.

Artículo 10.– Presentación de Solicitudes.

1.– Las pequeñas y medianas empresas presentarán las solicitudes, así como el resto de la documentación a que se refiere el artículo anterior, en las oficinas de las Sociedades de Garantía Recíproca colaboradoras de acuerdo con el Convenio. En la Orden de Convocatoria se detallarán las Sociedades de Garantía Recíproca colaboradoras y sus sucursales.

2.– Interesdunek informazioa eskuratu nahi badute www.ejgv.euskadi.net atarira sartu edo arreta emateko Zuzenean zerbitzura (012 telefonoa) jo ahal izango dute. Halaber, erakunde horietan eskabideak ere eskura ditzakete, gero aurkeztu ahal izateko.

11. artikulua.– Eskabideak aztertzea eta «Abala baimentzeko agiria» gauzatzea.

1.– Elkarren bermerako sozietate laguntzaileek aztertu eta ebaluatu beharko dituzte aurkezten diren eskabideak, abala eman baino lehen.

2.– Eskabidearen atalen bat bete gabe utzi bada edo horrekin batera ez bada aurkeztu 9. artikuluan zehazten den dokumentazioa, dagokion elkarren bermerako sozietate laguntzaileak 10 egun emango dizkio interesdun enpresari oker hori zuzen dezan edo falta diren agiriak aurkez ditzan; horrela egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko da.

3.– Elkarren bermerako sozietateak autonomia izan du jasotzen dituen eta xedetzat abala eskatzea duten eskabideak onartu edo ukatzeko; kontraberme errealak edo pertsonalak ere eskatu ahal izango ditu. Horretarako, betiere, egokitzat jotzen dituen aztertze eta erabakitze irizpideak aplikatuko ditu.

4.– Elkarren bermerako sozietate laguntzaileak, eskabidearen azterketa amaitu ostean, eta hala badagokio, «Abala baimentzeko agiria» egingo du. Agiri horretan, F4 inprimakian jasotako informazioa zehaztuko da.

5.– Elkarren bermerako sozietateak aldi berean emango die «Abala baimentzeko agiriaren» berri onuradunari, finantza erakunde laguntzaileari eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailari.

6.– Elkarren bermerako sozietate laguntzaileak Ogasun eta Herri Administrazio Sailari eman behar dio gauzatu diren abal-eragiketen eta ukatutakoen berri. Horretarako, lankidetzaz hitzarmenean ezartzen diren aldizkakotasuna, betekizunak eta ereduak beteko ditu.

12. artikulua.– Mailegu eta kreditu eragiketak gauzatzea.

1.– Elkarren bermerako sozietateak kreditu eragiketarako egiteko «Abala baimentzeko agiria» onetsi duenean, enpresa txiki eta ertainek lankidetzaz hitzarmena sinatzen duen finantza erakunderen batekin gauzatu dute abal hori.

2.– Finantza erakundeek gauzatzen diren mailegu edo kreditu eragiketen berri eman behar diote Ogasun eta Herri Administrazio Sailari. Horretarako, lankidetzaz hitzarmenean ezartzen diren aldizkakotasuna, betekizunak eta ereduak beteko dituzte.

2.– Los interesados podrán obtener información en el portal www.ejgv.euskadi.net o a través del servicio de atención Zuzenean (teléfono 012). Así mismo podrán obtener los impresos de solicitud, para su presentación, en las entidades antes citadas.

Artículo 11.– Análisis de las solicitudes y formalización del Documento de Autorización de Aval.

1.– Corresponderá a las Sociedades de Garantía Recíproca colaboradoras del programa el análisis y la evaluación de las solicitudes presentadas, con carácter previo a la concesión del aval.

2.– Si la solicitud no viniera cumplimentada en todos sus términos, o no fuera acompañada de la documentación relacionada en el artículo 9, la Sociedad de Garantía Recíproca colaboradora correspondiente, requerirá a la empresa interesada para que, en un plazo de 10 días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que si no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición.

3.– La Sociedad de Garantía Recíproca gozará de autonomía para la concesión o denegación de las solicitudes de aval que reciba, así como para la exigencia de contragarantías reales o personales, aplicando a estos efectos los criterios de análisis y decisión que considere convenientes.

4.– La Sociedad de Garantía Recíproca colaboradora, concluido el análisis de la solicitud, emitirá, en su caso, el «Documento de Autorización de Aval» en el que se especificará la información contenida en el Formulario F4.

5.– La Sociedad de Garantía Recíproca notificará el «Documento de Autorización de Aval» simultáneamente al beneficiario, a la Entidad Financiera colaboradora y al Departamento de Hacienda y Administración Pública.

6.– La Sociedad de Garantía Recíproca colaboradora procederá a comunicar al Departamento de Hacienda y Administración Pública tanto las operaciones de aval formalizadas como las denegadas con la periodicidad, requisitos y modelos establecidos en el correspondiente Convenio de Colaboración.

Artículo 12.– Formalización de las operaciones de préstamo y crédito.

1.– Una vez aprobado por la Sociedad de Garantía Recíproca el «Documento de Autorización de Aval» para la operación crediticia que se garantiza y remitido éste a la Entidad Financiera correspondiente, las pequeñas y medianas empresas procederán a la formalización de la citada operación con alguna de las Entidades Financieras firmantes del Convenio de colaboración.

2.– Las Entidades Financieras procederán a comunicar al Departamento de Hacienda y Administración Pública las operaciones de préstamo o crédito formalizadas, con la periodicidad, requisitos y modelos establecidos en el Convenio de Colaboración.

13. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

1.– Eragiketek ezinbestean bete behar dute Europako Batzordearen abenduaren 15eko 1998/2006 Araudian (EE), minimis laguntzei Ituneko 87. eta 88. artikuluetan ezarritakoa aplikatzeari buruzkoan, ezarritakoa.

Laguntza horiek bateragarriak izango dira beste administrazio publiko, sail, organismo edo erakunde publiko zein pribatu batek emandako laguntzekin; baina salbuespen araudian edo Batzordeak hartutako erabakian kasu bakoitzeko inguruabar zehatzetarako ezarritako laguntza ezin da izan laguntzen metatzea baino handiagoa.

2.– Arau honen bidez onuradun diren pertsonak edo erakundeak une oro jakinarazi behar diote Ogasun eta Herri Administrazio Sailari xede bererako beste diru-laguntza edo laguntzarik eta beste minimis laguntzarik jaso duten, bai zergaldi horretan bai ordura arteko aurreko bi zergaldietan.

IV. KAPITULUA
JARRAIPEN ETA EBALUAZIO BATZORDEA

14. artikulua.– Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea.

Programa jarraitu eta ebaluatuko duen batzorde bat eratuko da. Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren, elkarren bermerako sozietateen eta finantza erakunde laguntzaileen ordezkariak osatuko dute batzordea, eta bere zeregina programaren aplikazioa eta ebaluazioa aztertzea izango da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Finantza Erakundea dekretu honetan Ogasun eta Herri Administrazio Sailari esleitu zaizkion eskubide, betebeharrak eta zereginetan subrogatu ahal izango da, baita horren ondoriozko agindu eta lankidetzak hitzarmenetan ere.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari ahalmena eman zaio dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko abenduaren 30ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Artículo 13.– Compatibilidad de las ayudas.

1.– Las operaciones cumplirán lo establecido en el Reglamento (CE) n.º 1998/2006, de la Comisión, de 15 de diciembre, relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado a las ayudas de minimis.

Estas ayudas serán compatibles con otras procedentes de cualquier Administración Pública, Departamento, Organismo o Entidad Pública o privada, siempre y cuando la acumulación no dé lugar a una intensidad de ayuda superior a la establecida para las circunstancias concretas en cada caso en el Reglamento de exención por categorías o en una decisión adoptada por la Comisión.

2.– Las personas o entidades que resultaren beneficiarias a través de esta norma, deberán comunicar en todo momento al Departamento de Hacienda y Administración Pública, la obtención de otras subvenciones o ayudas para la misma finalidad, así como las ayudas de minimis percibidas tanto durante el ejercicio fiscal en curso como durante los dos anteriores hasta el día de la fecha.

CAPÍTULO IV
COMISIÓN DE SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN

Artículo 14.– Comisión de seguimiento y Evaluación.

Se constituirá una Comisión de Seguimiento y Evaluación del programa integrado por representantes del Departamento de Hacienda y Administración Pública, así como de las Sociedades de Garantía Recíproca y Entidades Financieras colaboradoras que analizará la aplicación y evolución del programa.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El Instituto Vasco de Finanzas podrá subrogarse en los derechos, obligaciones y funciones atribuidas al Departamento de Hacienda y Administración Pública en este Decreto, así como en las Órdenes y Convenios de Colaboración que de él se derivan.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta a la Consejera de Hacienda y Administración Pública para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

Segunda.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de diciembre de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

F1

ESKABIDEA

Espediente-zenbakia: Sozietatearen izena:

Jauna/andrea: NAN:

Honako karguduna naizen aldetik:

Enpresa honen legezko ordezkari naizela: IFZ:

Eremu honetan dihardu:

Sozietatearen helbidea:

Tel.: Faxa: e-maila:

«Enpresa txiki eta ertainen finantza egitura egokitzeko finantza laguntza emateko programa» delakoan sartzeko eskatzen du.

Data eta sinadura:

Agiri hauek eransten dira:

- Eskatzailearen ordezkari-tza-ahalmenaren fotokopia.
- Enpresaren datuei buruzko erantzukizuneko adierazpena.
- Zerga kontuetan egunean izatearen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.
- Foru Ogasunaren ziurtagiria, enpresa alta emanda dagoen jarduera ekonomikoen gaineko zerga agertzen duena.
- Azken ekitaldietako urteko kontuak.
- Pasibo galdagarriaren finantzaketa beharrei buruzko memoria.

– Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskuratutako zure datu pertsonalak datuak tratatzeko fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula. Datu horiek Elkarren Bermerako Sozietateei eta Finantza Erakundeei utzi ahal izango zaizkie, erakunde horiek finantza-programa hau kudeatzen lagunduko dutelako. Eskatzaileak, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzake, legean ezartzen denez. Horretarako, Ogasun eta Herri Administrazio Sailera jo beharko du. Hauxe du helbidea: Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

F2

ERANTZUKIZUNEZKO ADIERAZPENA

Espediente-zenbakia: Sozietatearen izena:

Jauna/andrea: NAN:

Honako karguduna naizen aldetik:

Enpresa honen legezko ordezkari naizela: IFZ::.....

ADIERAZTEN DU

- 1.- Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dela.
- 2.- Europako Batzordeak enpresa txiki eta ertainetarako ezarritako baldintzak betetzen dituela.
- 3.- Egoera arautua duela foru osasunetik zerga-betebeharretan, legeak dioena betez, eta egunean dituela, baita ere, Eusko Jaurlaritzarekiko edo Eusko Jaurlaritzaren edozein sozietate publikorekiko betebeharrak.
- 4.- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteak dituela.
- 5.- Enpresa eskatzailearen datuak, Europako Batzordeak Mikroenpresa, enpresa txiki eta enpresa ertainen definizioari buruz emandako 2003/5/6ko Gomendioan xedatutakoarekin bat etorritik, hauek direla:

	Langile-kopurua	Negozio-kopurua (€)	Urteko balantze orokorra (€)
Itxitako azken ekitaldia			
Itxitako azkenaurreko ekitaldia			

Data eta sinadura:

F3 PASIBO GALDAGARRIAREN FINANTZAKETA BEHARRAK DESKRIBATZEN DITUEN MEMORIA

1) azaroaren ko /2008 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren pasibo arrunteko kontuak honela daude enpresaren balantzean:

Zenbatekoa (eurotan)

KONTABILITATE KONTUA	IZENA	2007	2008
400	Hornitzaileak		
401	Hornitzaileak, ordaindu beharreko merkataritzako efektuak		
407	Hornitzaileentzako aurrerakinak		
520	Epe laburreko zorrak kreditu erakundeekin		
521	Epe laburreko zorrak		
524	Epe laburreko finantza errentamenduaren ziozko hartzekodunak		
525	Epe laburrera ordaindu beharreko efektuak		
527	Kreditu erakundeekin dauden zorren epe laburreko korrituak		
528	Zorren epe laburreko korrituak		
	GUZTIRA		

2) Onuradunaren kapital arruntaren bilakaera 2007. eta 2008. urteetan

Balantzea (milioi eurotan)	2007ko abenduaren 31	2008ko abenduaren 31
Korritu eta zergen aurreko etekina		
Finantza-gastuak		
Amortizazioak		
Aktibo arrunta		
– Diruzaintza edo baliokideak		
– Kobratu beharreko efektuak		
– Izakinak		
– Beste aktibo arrunt batzuk		
–		
Aktiboa arrunta guztira(1)		
Pasibo arrunta		
– Ordaindu beharreko efektuak		
– Epe laburreko zordunak		
– Beste pasibo arrunt bat		
–		
Pasibo arrunta guztira(2)		
Kapital arrunta (1)-(2)		
Kapital arruntaren aldaketa		

3) Pasibo arruntaren finantza-beharrak, kreditu-kontuak eta merkataritza-deskontua deskribaturik.

F4

ABALA BAIMENTZEKO AGIRIA

1) ERAKUNDE ABAL-EMAILEA:

2) ENPRESA ONURADUN, AUTONOMO EDO BANAKO ENPRESARIAREN DATUAK

Sozietatearen izena / Izena	
Sozietatearen helbidea	
IFZ/IFK	
EJSN	
Jardueraren deskripzioa	

3) ABALA DUEN FINANTZA ERAGIKETA

Eragiketa-mota	
Baimen-zenbakia	
Eragiketaren zenbatekoa	
Baimenaren data	
Interes-tasa	Euribor + (%)
Mugaeguna	
Gabezia nagusia	
Ordainketa nagusiaren kadentzia	
Korrituen ordainketaren kadentzia	
Finantza-erakundea	

4) BESTE ARGIBIDE BATZUK:

Beste ohar batzuk	
-------------------	--

Idazki honen bidez ziurtatzen dut Elkarren Bermerako Sozietate honek, (erakundea), baimendu egin duela (2. epigrafean aipaturiko enpresa/pertsona)–ri abal bat eman eta formalizatzea, eranskin honetan aipatzen diren baldintzetan, hala baitator xedatuta enpresa txiki eta ertainen finantza egitura egokitzeko finantza laguntza emateko programa garatzeko azaroaren ko /2008 Dekretuan eta banako enpresarien eta profesional autonomoen finantza egitura egokitzeko finantza-laguntza emateko programa garatzeko azaroaren ko /2008 Dekretuan.

.....n, 2009koaren.....a.

(ERAKUNDE ABAL-EMAILEA) EBS

Sin.:

F1

IMPRESO DE SOLICITUD

Número expediente: Razón social:

D. / Dña: Con D.N.I.:

En calidad de (cargo)

En representación legal de la empresa: Con N.I.F.:

Cuya actividad es:

Con domicilio social en y

Tel.: Fax: e-mail:

Solicita acogerse al «Programa de Apoyo Financiero para la adecuación de la estructura financiera de las Pymes».

Fecha y firma:

Documentación que se adjunta:

- Fotocopia del poder de representación de la persona solicitante.
- Declaración responsable sobre datos de la empresa.
- Certificación de estar al corriente de las obligaciones tributarias.
- Certificación de estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social.
- Certificado de la Diputación Foral en la que figure el Impuesto de Actividades Económicas en el que esta dada de alta la empresa.
- Cuentas anuales de los últimos ejercicios.
- Memoria de las necesidades de financiación del pasivo exigible.

– En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Hacienda y Administración Pública le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento van a ser incorporados para su tramitación en un fichero automatizado. Estos datos podrán ser cedidos a las Sociedades de Garantía Recíproca y Entidades Financieras colaboradoras con la finalidad de la gestión de este Programa de financiación. El solicitante podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley ante el Departamento de Hacienda y Administración Pública: calle Donostia-San Sebastián, 1- 01010 Vitoria-Gasteiz.

F2

DECLARACIÓN RESPONSABLE

Número expediente: Razón social:

D. / Dña: Con D.N.I.:

En calidad de (cargo)

En representación legal de la empresa: Con N.I.F.:

DECLARA QUE:

- 1.- Que tiene su domicilio en la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- 2.- Que cumple las condiciones de PYME establecidas por la Comisión Europea.
- 3.- Que tiene su situación regularizada en cuanto a sus obligaciones tributarias con las Diputaciones Forales de acuerdo con la legislación vigente, así como con el Gobierno Vasco o cualquiera de sus Sociedades Públicas.
- 4.- Que tiene su situación regularizada con la Seguridad Social.
- 5.- Que los datos de la empresa solicitante, tomados en los términos que indica la Recomendación de la Comisión Europea de 6/5/2003 sobre la definición de microempresas, pequeñas y medianas empresas, son los siguientes.

	Personas que ocupa	Volumen de negocio €	Balance general anual €
Ultimo ejercicio cerrado			
Penúltimo ejercicio cerrado			

Fecha y firma:

F3 MEMORIA DESCRIPTIVA DE LAS NECESIDADES DE FINANCIACIÓN DEL PASIVO EXIGIBLE

1) Situación en el balance de la empresa de las cuentas de pasivo corriente a las que se refiere el art. 4 del Decreto .../2008, de de noviembre:

(Importe en euros)

CUENTA CONTABLE	DENOMINACIÓN	2007	2008
400	Proveedores		
401	Proveedores, efectos comerciales a pagar		
407	Anticipos a proveedores		
520	Deudas a corto plazo con entidades de crédito		
521	Deudas a corto plazo		
524	Acreedores por arrendamiento financiero a corto plazo		
525	Efectos a pagar a corto plazo		
527	Intereses a corto plazo de deudas con entidades de crédito		
528	Intereses a corto plazo de deudas		
	TOTAL		

2) Evolución del capital corriente del beneficiario en los años 2007-2008

Balance (millones euros)	31 diciembre 2007	31 diciembre 2008
Beneficio antes de Intereses e Impuestos		
Gastos Financieros		
Amortizaciones		
Activo Corriente		
– Tesorería o equivalentes		
– Efectos por cobrar		
– Existencias		
– Otros activos corrientes		
–		
Total Activo Corriente(1)		
Pasivo Corriente		
– Efectos por pagar		
– Deudores a corto		
– Otro pasivo corriente		
–		
Total Pasivo Corriente(2)		
Capital Corriente (1)– (2)		
Variación Capital Corriente		

3) Descripción de las necesidades de financiación del pasivo corriente, cuentas de crédito o descuento comercial.

F4

DOCUMENTO DE AUTORIZACIÓN DE AVAL

1) ENTIDAD AVALISTA:

2) DATOS DE LA EMPRESA BENEFICIARIA/ AUTÓNOMO/EMPRESARIO INDIVIDUAL

Razón Social / Nombre	
Domicilio social	
NIF/CIF	
CNAE	
Descripción Actividad	

3) OPERACIÓN FINANCIERA AVALADA

Tipo de operación	
Nº Autorización	
Importe Operación	
Fecha Autorización	
Tipo de interés	Euribor + (%)
Vencimiento	
Carencia Principal	
Cadencia Pago Principal	
Cadencia Pago Intereses	
Entidad Financiera	

4) OTRAS CONSIDERACIONES

Otras observaciones	
---------------------	--

Por la presente doy fe que la (Entidad) S.G.R. ha autorizado la concesión y formalización de un aval en las condiciones expuestas en este anexo a la (empresa/persona descrita en el epígrafe 2º) de acuerdo con las condiciones reguladas en el Decreto/2008, de de noviembre, por el que se desarrolla el programa de apoyo financiero para la adecuación de la estructura financiera de las Pymes y el Decreto /2008, de , por el que se desarrolla el programa de apoyo financiero para la adecuación de la estructura financiera de los empresarios individuales y autónomos

En , a de de 2009.

(ENTIDAD AVALISTA) S.G.R.

Fdo